

Donostian, milla bederatzireun eta berrogetamaboskarren urteko Lotazillaren ogetamarrean, Ekauta-jauregian, Euskaltzaindiak egiten dau egungo deituriko batzarra.

Batzarkideak onexek dira: Villasante, Irigarai, Mitxelena ta Oleaga Euskaltzainak; eta Arrue ta Lojendio Euskaltzainordeak. Maipuru, lenengoa. Etxaide jaunak ezin etorria iragarri dau.

Asierea, araudizko otoitzaz emoten dako.

Gero len-aurreko batzar-agiria irakurri da ta aobatez onetsia izan da.

Urrengo, adierazo da Buenos Airesko "Euskalzaleak" deritxon Bazkunaren Montoya'tar Bedeta, Lendakariak eta Biteri'tar Bingen idazkariak bidaldutako gutun bat; beronegaz bidaltzen daue, Buenos Airesen 1887'garren urtean "Laurak Bat" batzokiaren zuzendaritza eukon jaunak Uruguayko San Jose errira euskaldunen alkartasuna lortzeko sortu zan batzordeari bidaldutako euskeraz egiñiko idazki baten argaz-kopia bat. Poz pozik, entzun dira bata ta bestea.

Irigoyen, Euskaltzaindi onen langileak, ildako Azkue jaunaren iztegiaren geigariarentzat itzaurre bat gertu dau. Lantxo au irakurri da eta onetsia izan da.

Arrue jaunak diño, bere irtiz Antzerki-sariketa bat gertutea euskerarentzat oso egoki ta onurakorra izango litekela. Aintzakotzat artzen da asmo au. Aitaturiko sariketaren zertzeladak zeaztu begiz Arrue jaunak urrengo batzarrera ekarri begiz, dagokon erabakia artzeko.

Oleaga jaunak aitatuten dau, Euskaltzaindiaren lenegoko erabagi bat beteaz, Bizkaiko Ekautaren Junta de Cultura'ri, bere diru laguntasuna geiagotu dagian egin-dako eskaria, eta jakin erazoten dau eskari ori onetsia izan dala.

Beste barik eta araudizko otoitzaz amaitu da batzarra.

*Euskaltzainburu-ordea*  
Villasantetar Luis

*Zadorlaria*  
Nazario Oleaga